# Ganbaren Biltzarra enpresaren etorkizun soslaia definitzen

**ESPAINIAKO** Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganbarek Biltzar bat egin dute azaro bukaera aldera; biltzar horretan erakunde horiek datozen urteetarako izango dituzten estrategia politikak definitu dituzte. Bilera honek garrantzi handia du, horretan definitu baitira Espainiako enpresa ehunarentzat, eta Gipuzkoakoarentzat, gure kasuan, eragin berezia izango duten etorkizunerako jarduераren nondik norakoak.

Ez da Ganbarek berentzat bakarrik antolatutako ekitaldia. Oso bestela baizik, 2.000 enpresatik gorako ordezkari izan dira parte hartzaile, eta administrazio desberdinetako goi mailako kide asko ere bai, Gobernu Zentralekoak, besteren artean. Mariano Rajoy  inauguratu zuen ekitaldia. Esan daiteke, zinez, enpresen arteko XXI. mendeko lehenengo bilera handia zian dela.

Partaidetza askotariko horren ugaritasunak berak garantizatzen du topagune horretan hartu diren erabakiek badutela, a priori, gero bideratu behar dituzten eragile gehienen aldetiko adostasuna. Jarduerak epe ertainera definitu eta landu beharrekoak badira ere, estrategiaren nondik norakoak finkaturik daude Biltzarraren ondoren. Hemendik aurrera estrategia horretarako egiten diren ekarpen baliagarri guztiak jaso eta sartzen ahaleginduko da Gipuzkoako Bazkundea.

Gipuzkoako Bazkundeak oso eginkizun eraginkorra izan du Biltzar hori prestatzeko lanetan. Badaki, jakin, gogoeta egin beharra dagoela enpresa ehunak gaur duen egoeraz, nola iritsi den egoera honetara, zer faktorek eragiten duten enpresen jardunean, eta, gogoeta horretan oinarrituta, nola jokatu behar duen enpresa ehunaren lehiakortasuna hobetzeko. Horregatik, hain zuzen, ezin baztertuzkoa iritzi dio Ganbaren Biltzarra prestatzen parte harteko eskaintzen zitzaion aukerari.

Prozesu horren barruan, bada, Gipuzkoako Bazkundeak gogoeta ahalegin sakona egin du ekonomiaren sektore duztien analisia egiteko, sektore horretako bakoitzari zegokionez bere ekarpenak egiteko. Nazioarteratzea, formazioa, merkataritza eta banakuntza, ikasketak eta Informazioaren Gizartea izan dira Gipuzkoako bazkundeak landu dituen alorrak. Departamenduen arduradunek Ganbaren Kontseilu Nagusitik jasotako dokumentazioa aztertu, beren esku zuten informazioa berrikusi, eta ideia berriak bildurik, beren gogoetak eta iritziak aurkeztu dituzte. Horiek guztiak azken txostenean jasota daude.

Gipuzkoako Bazkundeak  enpresarioei egiaz Informazioaren Gizartean sartzen lagunduko dieten produktuak edo zerbitzuak, eta gizarte horretan aise eta egoki moldatzen lagunduko dieten tresnak eskaini beharra defenditu du batez ere. Enpresek mundu globalizatu batean kanpora begira izan behar duten ekimena izan da gogoeta gaietako beste bat, eta gogoeta gai izan dira orobat prestakuntzan ageri diren joera berriak ere. Enpresaritzarako Eskolaz Kanpoko Formazioa da alor honetan sortzen ari diren joeren adibide bikain bat, horrelakoetan informazioaren teknologiez baliatuz konpontzen baitira irakasleak aurrez aurre eman behar eta ezinezko prestakuntzaren ezintasunak.

Lan erraldoia da, eta partehartze handia eskatzen du. Enpresa ehuna indartu eta enpresen lehiakortasuna bizkortu beharra dago gauza guztiak etengabe aldatuz doazen garaiotan, eta Ganbaren Biltzar Orokorra aukera ezin hobea da, horretan zerikusia duten eragile guztien artean horretarako estrategiak definitu ahal izateko.

Lan erraldoia da, eta partehartze handia eskatzen du. Ganbarek, ekonomiaren hazkundean laguntzeko duten eginkizun eta helburu horri jarraituz, uste osoa dute beren ekimena erabakigarria dela horretarako bidean. Enpresekin eta administrazioekin batera, ziur gaude jakingo dugula topaketa hauei errenta ateratzen, eta zalantzarik ez dugu erdi epera eragin handia izango duela enpresa jarduera hobetzeko.



# La Asamblea de Cámaras perfila el futuro empresarial

Las Cámaras de Comercio, Industria y Navegación del Estado han celebrado, a finales de noviembre, una Asamblea en la que se han definido las políticas estratégicas de estas instituciones para los próximos años. Esta reunión es de notable importancia, puesto que de ella han salido las líneas de futuro que van a afectar a todo el tejido empresarial estatal, y al guipuzcoano en particular.



No se trata tan sólo de un acto organizado por y para las Cámaras. Muy al contrario, a él han asistido representantes de más de 2.000 empresas, así como destacados miembros de las diversas administraciones, entre las que se encuentra el Gobierno Central. De este modo, este acto inaugurado por el vicepresidente primero del Gobierno, Mariano Rajoy, se convierte en la primera gran reunión empresarial del siglo XXI.

La pluralidad de la participación garantiza que las decisiones que se han tomado en este foro cuentan, a priori, con el acuerdo de los principales agentes que deben llevarlas a cabo. Si bien las actuaciones específicas deberán definirse y trabajarse a medio plazo, la línea estratégica se consolida tras la Asamblea. A partir de ahora, la Cámara de Gipuzkoa trabajará por incorporar las aportaciones de valor que se planteen.

La Cámara ha tenido un papel activo en la preparación de esta Asamblea. Es consciente de que existe la necesidad de reflexionar sobre la situación actual del tejido empresarial, cómo ha llegado a ella, qué factores rodean a su actividad y, a partir de ahí, cómo tiene que reaccionar para incrementar su competitividad. Por este motivo, ha considerado una oportunidad irrenunciable su implicación en el desarrollo de la Asamblea de Cámaras.

Dentro del proceso, la Cámara de Gipuzkoa ha realizado una profunda tarea de análisis de los diversos sectores económicos para, en cada uno de ellos, trasladar sus aportaciones. Internacionalización, formación, comercio y distribución, estudios y Sociedad de la Información han sido los ámbitos en los que ha trabajado la Cámara de Gipuzkoa. Los responsables de los departamentos han estudiado la documentación recibida del Consejo Superior de Cámaras, han revisado la información de la que disponen y, con nuevas ideas, han aportado sus consideraciones. Todas ellas se ven recogidas en el informe final.

La Cámara de Gipuzkoa ha defendido, principalmente, el desarrollo de productos o servicios que ayuden al empresariado a incorporarse de forma efectiva a la Sociedad de la Información, y que le faciliten herramientas para desenvolverse en ella adecuadamente. La actividad exterior de las empresas en un mundo globalizado es otra de las cuestiones sobre las que ha reflexionado, así como las nuevas tendencias en la formación. La Formación Empresarial No Presencial se convierte en un ejemplo de qué tendencias surgen en este ámbito, en la que la aplicación de las tecnologías de la información resuelve los problemas que plantea una capacitación presencial.

Se trata de un trabajo ingente, que pide una alta implicación. Resulta necesario potenciar el tejido empresarial y promover su competitividad en unos tiempos de constante cambio, y la Asamblea General de Cámaras es una inmejorable oportunidad de definir las estrategias para hacerlo, entre todos los agentes implicados.

Es un trabajo ingente, que pide una alta implicación. Las Cámaras, en su vocación de ayudar al desarrollo económico, creen que su papel es determinante en este camino. Junto con las empresas y administraciones sabremos rentabilizar este encuentro, que a medio plazo tendrá su repercusión en la mejora de la actividad empresarial.